# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia — Iruña, 2009ko uztailaren 31 — 79. ZK.

## A U R K I B I D E A

E SAILA:

**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Adierazpen instituzionala, Diego Salvá Lezáun eta Carlos Sáenz de Tejada García guardia zibilen hilketa dela-eta erabateko gaitzespena agertzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an eginiko gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

—Galdera, jakiteko Remontival ikastetxean zergatik ez dagoen eskola-garraiorik D ereduko ikasleentzat. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, Aberingo udal mugapeko azpiestazio elektrikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik bertan dauden langile-sindikatuei, gizarte-ekonomiako elkarteei eta enpresaburu-elkarteei egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren kargura sindikatu, gizarte-ekonomiako elkarte eta enpresaburu-elkarte bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—Galdera, inolako langabezia-prestaziorik jasotzen ez duten pertsonei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, “Red de informantes clave del sector de automoción en Navarra. Actualización del cuadro de indicadores del sector” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, UGT sindikatuak jardunaldi, kongresu, mintegi eta bilera zientifikoak eta teknikoak antolatzeko jaso dituen zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak jardunaldi, kongresu, mintegi eta bilera zientifikoak eta teknikoak antolatzeko jaso dituen zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Galdera, CCOO sindikatuak jardunaldi, kongresu, mintegi eta bilera zientifikoak eta teknikoak antolatzeko jaso dituen zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, “Detección de empresas flexibles y la calidad del empleo en Navarra, a través de los convenios colectivos” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Galdera, “Empleo e inmigración en Navarra - Fase II” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak nola jarriko dituen 120.000 euro gehiago Barañaingo Auditorioarekin izenpetua duen hitzarmenerako. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Galdera, jakiteko zein diren Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren benetako arrazoiak Aralarko San Migelen euskarazko izena ez jartzeko harako errepidean jarritako karteletan. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko zerbitzuak birmoldatzeko asmoa daukan. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
—Galdera, “Análisis de la situación de las personas paradas de larga duración” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
—Galdera, “Herramientas metodológicas: Historias de vida” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
—Galdera, “Mejora de la calidad de la oferta en la formación de demanda. Estudio del caso: Familia profesional: Fabricación mecánica” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
—Galdera, “Capacidades tecnológicas, competitividad y empleo: la extensión de los sistemas de fabricación integrada en los sectores industriales de Navarra” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—Galdera, “Trabajo no declarado en Navarra - Fase II” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—Galdera, “Sistema de vigilancia permanente del sector de automoción” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
—Galdera, “Un autónomo o autónoma diferente. Los `Trade´ en Navarra” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
—Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta INAFREren arteko hitzarmena sinatu ondotik aurkeztutako eta onetsitako proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

**E saila:**
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# Adierazpen instituzionala, Diego Salvá Lezáun eta Carlos Sáenz de Tejada García guardia zibilen hilketa dela-eta erabateko gaitzespena agertzeko.

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2009ko uztailaren 31n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak, ETA talde terroristak Diego Salvá Lezáun eta Carlos Sáenz de Tejada García guardia zibilak Calvián (Mallorca) erail izanaren aurrean, hauxe ERABAKI DU:

Lehena: Erabateko gaitzespena adieraztea, ETA talde terroristak Calvián (Mallorca), bonba itsatsi bat erabiliz, Diego Salvá Lezáun eta Carlos Sáenz de Tejada García guardia zibilak doilorki erail baititu.

Bigarrena: Diego Salvá Lezáun –zeinaren nafartasuna aitortzen baitugu– eta Carlos Sáenz de Tejada García guardia zibilen senide eta lagunei eta Guardia Zibileko haien kideei elkartasuna eta hurbiltasuna helaraztea.

Halaber, Nafarroako Parlamentuak berriz ere babesa agertu nahi die Estatuko segurtasun indar eta kidegoei, indarkeria terroristaren aurka eta herritarren eskubideen eta askatasunen defentsaren alde etengabe egiten duten lanarengatik.

Elkartasuna eta hurbiltasuna helaraztea Burgosko Guardia Zibilaren polizia etxearen aurkako atentatuan zauritutakoei. Osasuna berehala eta guztiz berreskura dezaten opa diegu.

Hirugarrena: ETAk gizarte demokratiko osoaren, erakundeen, ordezkari politikoen, enpresa- eta gizarte-erakundeetako ordezkarien eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoen aurkako bere erasoan jarraitzeko duen asmo iraunkorraren aurrean, indar demokratikoek beste behin aldarrikatzen dugu ezinbestekoa dela indar politikoen eta gizarte osoaren batasuna ETA amai dadin lortzeko.

Zuzenbideko estatuaren zilegitasunarekin, segurtasun indar eta kidegoen lanarekin eta gizarte demokratikoaren gehiengo itzelaren laguntzarekin, ETAko hiltzaileak Justiziaren eskuetan utzi eta hainbesteraino eragin duten izua espetxearekin ordainduko dute.

Laugarrena: Erabateko errefusa adierazten dugu ETA talde hiltzailearen erabaki kriminala dela eta, hain zuzen azken bi ekintzetan erakutsi duen bezala mina eta heriotza eragin nahi baititu, eta sinesten dugu gizarte demokratikoa sekula ez dela ETAren izuaren diktaduraren pean jarriko.

Bosgarrena: Bizitzaren eta bakearen defentsan, herritarrei dei egitea Diego Salvá Lezáun eta Carlos Sáenz de Tejada García jaunen erailketaren aurkako adierazpen publikoak babes ditzaten eta haietara joan daitezen."

Iruñean, 2009ko uztailaren 31n

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an eginiko gastuei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an eginiko gastuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 3ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an eginiko gastuei buruz (PES-102). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

2007an 1. ARDATZERA bideraturiko dirua 21.084.531 euro izan ziren (5.271.125 FEADER-ek eta 15.813.406 Nafarroako Gobernuak); 2. ARDATZERA, berriz, 6.972.715 euro bideratu ziren (3.834.983 FEADER-ek eta 3.137.732 Nafarroako Gobernuak); 3. ARDATZERAKO 227.083 euro bideratu ziren (113.541 FEADER-ek eta 113.541 Nafarroako Gobernuak), eta 4. ARDATZERAKO, azkenik, 0 euro. 2008rako 1. ARDATZERA bideraturiko diru kopurua 26.354.949 euro izan ziren (6.588.738 FEADER-ek eta 19.766.211 Nafarroako Gobernuak); 2. ARDATZERAKO 12.918.829 euro bideratu ziren (7.105.342 FEADER-ek eta 5.813.487 Nafarroako Gobernuak); 3. ARDATZERAKO 999.087 euro bideratu ziren (499.544 FEADER-ek eta 499.544 Nafarroako Gobernuak), eta 4. ARDATZERAKO, azkenik, 207.721 euro (114.247 FEADER-ek eta 93.475 Nafarroako Gobernuak).

Nafarroako Gobernuak guztira 10.700.100 euro bideratu ditu, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan, LEADER ardatzera.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

# Galdera, jakiteko Remontival ikastetxean zergatik ez dagoen eskola-garraiorik D ereduko ikasleentzat.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du jakiteko Remontival ikastetxean zergatik ez dagoen eskola-garraiorik D ereduko ikasleentzat.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak galdera egin du, jakiteko Remontival ikastetxean zergatik ez dagoen eskola-garraiorik D ereduko ikasleentzat (PES-105). Hona erantzuna:

Hezkuntza Departamentuak dituen datuen arabera, ez dago arazorik Lizarrako Remontival ikastetxeko D ereduko ikasleekin, normaltasunez garraiatzen ari baitira horiek guztiak.

Seguruenik, galderak Lizarrako Tierra Estella BHIko D ereduko ikasleei buruzkoa izan nahi du.

Lehenik eta behin nabarmendu behar da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan D ereduan matrikulatutako ikasleak normaltasunez ari direla garraiatzen, guk dakigunez ez baitago inolako arazorik garraioari dagokionez.

Batxilergoko D ereduko ikasleei dagokienez, kontuan izan behar da ikasle horiek derrigorrezkoaren ondoko ikasketak egiten ari direla, eta, horrenbestez, ez dute eskubiderik Hezkuntza Departamentuak antolatutako eta finantzatutako garraiorik izateko, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak ekainaren 11n emandako 190/2008 Ebazpeneko 1.1 idatz-zatian ezarritakoaren arabera (uztailaren 25eko 91. NAO).

Iruñean, 2009ko maiatzaren 5ean

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

---

# Galdera, Aberingo udal mugapeko azpiestazio elektrikoari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Aberingo udal mugapeko azpiestazio elektrikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

NaBai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Aberingo udal mugapeko azpiestazio elektrikoari buruz (PES-108/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Galderak aipatzen duen instalazioak zerikusia du Red Eléctrica de España enpresak sustatutako Muru Artederreta-Gasteiz 400 Kv-ko linea eraikitzeko proiektuarekin.

Galderan aipatu azpiestazioa beharrezkoa da 400 Kv-ko linea horretatik Lizarraldera egin beharreko hornidura elektrikoa hobetzeko. Zehazki, azpiestazioak ahalbidetuko du merindadea energiaz hornitzea eta, aldi berean, eskualde horretan sortzen den energia berriztagarria ateratzea, batez ere parke eolikoetan eta parke fotovoltaikoetan sorturikoa.

Azpiestazioa azpiegitura elektriko bat da, Iberdrola enpresak sustatua. Gaur egun oraindik ez dago erabakita non jarriko den; beraz oraingoz

ezin dira zehaztu ingurumenean eraginen dituen ondorioak.

Orain arte, Departamentuak zenbait bilera eta telefono elkarrizketa izan ditu Aberingo Udalarekin eta aurrerantzean ere harremanetan jarraitzeko prest gaude.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 4an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

## Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik bertan dauden langile-sindikatuei, gizarte-ekonomiako elkarteei eta enpresaburu-elkarteei egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren kargura sindikatu, gizarte-ekonomiako elkarte eta enpresaburu-elkarte bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik bertan dauden langile-sindikatuei, gizarte-ekonomiako elkarteei eta enpresaburu-elkarteei egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren kargura sindikatu, gizarte-ekonomiako elkarte eta enpresaburu-elkarte bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du sindikatu, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik gizarte-ekonomiako elkarte eta enpresaburu-elkarte bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruz (PES-110/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Horra entitateen izenak eta horiei 2008an transferitutako zenbatekoak Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik:

Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa 137.237,60

| | |
|---|---|
| UGT | 58.816,13 |
| CC.OO | 39.210,75 |
| ELA | 19.605,38 |
| LAB | 19.605,38 |
| ANEL | 19.605,38 |
| UCAN | 19.605,38. |
| GUZTIRA | 313.686 |

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

# Galdera, inolako langabezia-prestaziorik jasotzen ez duten pertsonei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du inolako langabezia-prestaziorik jasotzen ez duten pertsonei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du langabeziako prestazioei buruz (PES-111/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Galderan aipatzen den eskumena ez da ez Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuarena ez Nafarroako Gobernuarena. Foru Administrazioaren eskumena da, berriz, enplegu arloko politika aktiboak taxutzea eta aplikatzea. Politika aktibo horien artean ez daude langabeziako prestazioak, Administrazio Zentralaren esku daude eta.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

# Galdera, “Red de informantes clave del sector de automoción en Navarra. Actualización del cuadro de indicadores del sector” izeneko azterlanari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du “Red de informantes clave del sector de automoción en Navarra. Actualización del cuadro de indicadores del sector” izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak CCOOri enkargua eman baitzion “Red de informantes clave del sector de automoción en Navarra” izeneko azterlana egiteko. Aurreikusitako kostua 27.178 euro ziren (PES-114/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Departamentuak azterlan horretan proposatutako jarduera- eta hobekuntza-neurriei buruz duen iritziari dagokionez esan beharra dago Gobernu honek begi onez ikusten duela azterlan baten emaitzen ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak, edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar

zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Departamentuak proposatu zaizkion neurrietakoren bat ezartzeko asmorik ote duen eta noiz ezarriko lituzkeen galdetzen da, eta horri buruz adierazi behar dizut Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen dituela azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenei dagokienez –azkena, exekutiboa eta proiektu bakoitzaren laburpena–, idazki honen eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00114 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/

---

# Galdera, UGT sindikatuak jardunaldi, kongresu, mintegi eta bilera zientifikoak eta teknikoak antolatzeko jaso dituen zenbatekoei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du UGT sindikatuak jardunaldi, kongresu, mintegi eta bilera zientifikoak eta teknikoak antolatzeko jaso dituen zenbatekoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren zortzigarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak UGTri gehienez ere 57.200 € emanen baitizkio jardunaldiak, kongresuak, mintegiak eta bilera teknikoak eta zientifikoak egiteko (PES-119/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

| JARDUNALDIAK | Aurreikusia |
|---|---|
| Lan-harremanak. Langileen kontratazioari eta kontratu mota bakoitzaren ezaugarriei buruzko monografikoa. | 1.933,72 |
| Gizarte segurantza: Gizarte Segurantzaren arloko neurriei buruzko abenduaren 4ko 40/2007 Legearen berritasunak. | 2.179,75 |
| Jardunaldia: Automozioaren sektorearen –ibilgailuen eta kamioien fabrikatzaileen– egoera eta etorkizuna | 20.218,60 |
| Jardunaldia: Automozioaren sektorearen –ibilgailuen eta kamioien fabrikatzaileen– egoera eta etorkizuna **3.377,91 €, akats bat dela-eta aurretik sartu gabeak** | 3.377,91 |
| 2. jardunaldia: Lan-harremanak: Langileen kontratazioari eta kontratu mota bakoitzaren ezaugarriei buruzko monografikoa. | 1.980,59 |
| 2. jardunaldia: Gizarte Segurantza: Gizarte Segurantzaren arloko neurriei buruzko abenduaren 4ko 40/2007 Legearen berritasunak. | 1.980,59 |
| Jardunaldia: Enplegu-erregulazioko espedientea (urriaren 30a) | 2.530,25 |
| Negoziazio kolektiboari buruzko jardunaldia | 16.743,27 |
| Automozioari buruzko jardunaldia | 2.124,27 |
| Enplegu-erregulazioko espedienteei buruzko jardunaldia (Tutera) | 1.439,56 |
| Nafarroako etxegintzari buruzko jardunaldia. Egungo krisiaren erronkak | 1.095,06 |
| **Ordaindutakoa, guztira** | **55.603,57** |
| **Ordaindu gabe** | **1.596,43** |

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

El Consejero de Innovación, Empresa y Empleo:Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig AldasoroJosé María Roig Aldasoro

---

## Galdera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak jardunaldi, kongresu, mintegi eta bilera zientifikoak eta teknikoak antolatzeko jaso dituen zenbatekoei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak jardunaldi, kongresu, mintegi eta bilera zientifikoak eta teknikoak antolatzeko jaso dituen zenbatekoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren zortzigarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioari gehienez ere 30.000 € emanen baitizkio jardunaldiak, kongresuak, mintegiak eta bilera teknikoak eta zientifikoak egiteko (PES-120/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

| JARDUNALDIAK | Aurreikusia |
|---|---|
| Etxegintzaren astea: tailerrak | 2.280,00 |
| Kontabilitate Plan Orokor berriari eta 1990eko Kontabilitate Plan Orokorrarekiko aldeei buruzko jardunaldia | 3.666,35 |
| Oinarrizko ingurumen kudeaketari buruzko mintegia | 1.772,74 |
| Ingurumenari buruzko informazio jardunaldiak: Kolektore publikoetara ura isurtzen den jarduerei eta Reach erregelamenduak ukitutako jarduerei lotutako lege-betebeharrak | 1.322,40 |
| Barne komunikazioa: langileak antolakuntzaren estrategian inplikatzeko tresna bat. Irizpideak eta aholku praktikoak | 2.760,72 |
| Enpresa txikietako oinarrizko kudeaketari buruzko jardunaldiak | 3.378,24 |
| Jardunaldiak: Nafarroa, talentua garatzeko eta erakartzeko gunea | 2.058,10 |
| Jardunaldia: Zer egin dezaket hedabideek nire enpresari buruz gehiago eta hobeto hitz egin dezaten? | 3.331,43 |
| Jardunaldia: Aldaketaren kudeaketa eta lidergoa | 4.182,14 |
| **Ordaindutakoa, guztira** | **24.752,12** |
| **Ordaindu gabekoa** | **5.247,88** |

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

---

# Galdera, CCOO sindikatuak jardunaldi, kongresu, mintegi eta bilera zientifikoak eta teknikoak antolatzeko jaso dituen zenbatekoei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du CCOO sindikatuak jardunaldi, kongresu, mintegi eta bilera zientifikoak eta teknikoak antolatzeko jaso dituen zenbatekoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren zortzigarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak CCOOri gehienez ere 38.000 € emanen baitizkio jardunaldiak, kongresuak, mintegiak eta bilera teknikoak eta zientifikoak egiteko (PES-121/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegukо kontseilariaren erantzuna:

| JARDUNALDIAK | Ordaindutakoa |
|---|---|
| III."Javier Irigoyen" eskola: Lehiakortasuna, enplegua eta gizarte kohesioa | 15.747,62 |
| Jardunaldia: "Erronka bat, gazteen lan merkatuaren kohesioa" | 6.500,96 |
| Immigrazioa eta lan merkatua | 2.691,48 |
| **Ordaindutakoa, guztira** | **24.940,06** |
| **Ordaindu gabekoa** | **13.059,94** |

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

# Galdera, "Detección de empresas flexibles y la calidad del empleo en Navarra, a través de los convenios colectivos" izeneko azterlanari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du "Detección de empresas flexibles y la calidad del empleo en Navarra, a través de los convenios colectivos" izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak UGTri enkargua eman baitzion "Detección de empresas flexibles y la calidad del empleo en Navarra, a través de los convenios colectivos" izeneko azterlana egiteko. Aurreikusitako kostua 59.646 euro ziren (PES-128/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Gobernu honek begi onez ikusten du azterlan baten ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak, edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen ditu azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenak –azkena, exekutiboa eta proiektu bakoitzaren laburpena– idazki honen eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00128 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/

# Galdera, “Empleo e inmigración en Navarra - Fase II” izeneko azterlanari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du “Empleo e inmigración en Navarra - Fase II” izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak CCOOri enkargua eman baitzion “Empleo e inmigración en Navarra - Fase II” izeneko azterlana egiteko. Aurreikusitako kostua 89.965 euro ziren (PES-129/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Gobernu honek begi onez ikusten du azterlan baten ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak, edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen ditu azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenak –azkena, exekutiboa eta proiektu bakoitzaren laburpena– idazki honen eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00129 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/

## Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak nola jarriko dituen 120.000 euro gehiago Barañaingo Auditorioarekin izenpetua duen hitzarmenerako.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak nola jarriko dituen 120.000 euro gehiago Barañaingo Auditorioarekin izenpetua duen hitzarmenerako.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 27ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Barañaingo Auditoriorako kontusailari buruz (PES-132). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

120.000 euroko gehikuntza eginen da, beste kontusail batzuk doituz edo transferentziak eginez.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, jakiteko zein diren Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren benetako arrazoiak Aralarko San Migelen euskarazko izena ez jartzeko harako errepidean jarritako karteletan.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zein diren Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren benetako arrazoiak Aralarko San Migelen euskarazko izena ez jartzeko harako errepidean jarritako karteletan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 27ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Aralarko San Miguel santutegiko seinaleztapenari buruz (PES-133). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Herri Lan Departamentuari eskatuko diogu seinalea zuzen dezan, ezarrita duen planarekin bat.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 6an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

# Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko zerbitzuak birmoldatzeko asmoa daukan.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko zerbitzuak birmoldatzeko asmoa daukan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 27ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak eginiko galderari erantzunez eman da ondoko

TXOSTENA

<u>Hezkuntza Departamentuak ba al du CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko zerbitzuak birmoldatzeko asmorik?</u>

CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroa foru dekretu bidez sortu zen 1993an, ezgaitasunei lotutako hezkuntza premia berezien arloko guztia antolatu eta koordinatzeko eta hezkuntza-sistemari babesa emateko egitura espezializatu gisa sortu ere, ikasleen eskola-integrazioa ahalik eta egokien egite aldera.

Batetik, Hezkuntza Administrazioaren organo operatibo gisa sortu zen, hezkuntza-sistemako hezkuntza premia berezien kudeaketarako eta esku-hartze espezializaturako. Bestetik, eta hezkuntzako normalizazio eta integrazio printzipioekin bat, CREENAren esku-hartze espezializatu eta apartekoa, zeina hezkuntza-erkidegoa osatzen duten guztiei zuzentzen baitzaie (irakasleak, ikasleak eta familiak), "osagarritasun" eta "subsidiaritate" irizpideei jarraikiz egiten da, eta bere jarduketak beti izanen dira prestakuntza-jarduketak eta ohiko baliabideen autonomia bultzatzekoak.

CREENAren oinarriei eta helburuei erreparatuta, haren beste ezaugarrietako bat izanen da, hortaz, malgutasuna, aldakortasuna eta hezkuntza arloko aldaketei egokitzea, hala barne-osaerari dagokionez nola sistemaren beharrizanei –aldakorrak inondik ere– erantzuteko moduari dagokionez.

1990ean LOGSE onetsi arte, hezkuntza berezia eta hezkuntza arrunta zein bere bidetik ibili ziren. Ekipo espezializatuetan funtzionatzeak bide eman zuen ezgaitasunetako bakoitzean gehiago sakontzeko, hasierako fase batean, arlo teoriko nahiz praktikoan, gutxi baikenekien ezgaitasunak dituzten pertsonek ingurune arruntetan dituzten hezkuntza-ahalmenei buruz.

Harrezkero, arreta ezgaitasunean jartzen duen eredua gaindituta, arretan ikaslearen hezkuntza eta moldaera beharrizanetan jartzen duen erantzun bana-banakoa bilatzen da. Aniztasuna continuum bat balitz bezala hartzen da, bai ikasleen beharrizanak behatzeko eta hautemateko –eskolako ikaskuntzei lotuta betiere–, bai hautemandako beharrizanei egokitutako erantzunak planifikatu eta antolatzeko. Continuum horretan modu integratuan jasotzen dira ezgaitasuna duten ikasleen hezkuntza premia "bereziak"; eta kasurik gehienetan, baliabide ez-ohikoak erabiltzea dakar horrek.

CREENA sortu zenetik igarotako urteotan zenbait aldaketa egin dira, beharrezkotzat jo ohi diren birdoitzeen arabera. Hezkuntza premia bereziko ikasleak arian-arian sartu dira ohiko ikastetxeetan, eta gero eta profesional espezialista gehiago dago laguntza zuzena ematen ikastetxeetan (orientatzaileak, pedagogia terapeutikoko irakasleak, entzumeneko eta hizkuntzako irakasleak, fisioterapeutak, zaintzaileak, zeinu-mintzairako interpreteak...), eta horrek bide ematen du baliabide guztiak, hala arruntak nola espezializatuak, gehiago inplikatzeko eta koordinatzeko, normalizazioa eta barne-hartzea areagotze aldera.

Hezkuntzari eta ezgaitasuna duten pertsonei buruzko I. Kongresu Nazionalean (Iruña, 2003) jaso zen, CREENAren etorkizuneko aukerei begira beharrezkoa dela irakasleen prestakuntzaren arloan lankidetzan aritzea, ikastetxeak gero eta autonomoagoak izate aldera hezkuntza premia berariazkoei eman beharreko erantzuna baloratu eta antolatzerakoan, eta ikusi zen beharrezkoa dela haien funtzionamendua aldatzea.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezartzen duenez, "aniztasunaren" kontzeptua hezkuntza-printzipio bat da, ira-

kaskuntza nahiz hezkuntza arloko ekintza orotan aintzat hartu beharrekoa. Zabaldu egin da premia berariazkoen kontzeptua; halatan, erantzunaren indarra jarri da oinarrizko konpetentziak lortu eta garatzean, eta gainditu da integrazioaren printzipioa, barne-hartzearen printzipioaren mesedetan.

Gure erkidegoan, sendotuz joan da urteotan ikasle horien arretarako antolamendu- eta funtzionamendu-egitura eta ikastetxeetan arreta zuzena eskaintzeko baliabide espezializatuak paratuz joan dira. Ikastetxeetara baliabide espezializatuak hurbiltzeko eta orokortzeko bide horretan sakondu beharra dago. Hartara, CREENAk lehentasuna eman behar die gida-materialak sortu, editatu eta zabaltzeari, formula integratzaile eta barne-hartzaileen berrikuntzari eta irakasleen prestakuntzan lankidetzan aritzeari, ahaztu gabe ekipo berariazkoek, espezialista diren aldetik, eginiko eskakizunak.

Onartu beharra dago CREENAk lan handia egin duela gure erkidegoan ezgaitasuna duten ikasleen integrazioari begira, eta horrek eragina izan duela gure erkidegotik kanpo ere, baina orain, azken hamasei urteotako aldaketak aldaketa –besteak beste, ezgaitasunaren kontzeptua bera aldatu da mundu mailan–, beharrezkoa da CREENA eguneratzea. Egin beharreko aldaketak egiteko unea iritsi da, bai eta hasierako printzipioak eta irizpideak, CREENAren jarduna gidatzen jarraitu behar dutenak, berreskuratzekoa ere, hezkuntza-sistemaren premia berariazkoei erantzun egokia eman ahal izateko.

Hala bada, aniztasunaren eta inklusioaren printzipioei jarraikiz, CREENAk sistemaren kanpo-laguntzako zentro gisa indartu beharra du, lehentasuna emanez bere jarduketa guztietan aholkularitzari eta prestakuntzari, ikastetxeen autonomia bultzatzea helburu. Esku-hartzeak hainbat arlotan sakondu behar du, esaterako ondokoetan: laneratzeko eta gizarteratzeko prestakuntza, ikastetxeetako praktikak hobetzera bideratutako arloetako ikerkuntza, jardunbide onen sustapena eta hedapena, familientzako informazioa eta harrera eta abar. Ez da, hortaz, eredu berri bat, baizik eta esku-hartzeko ereduaren eguneratze bat, egungo araudiak exijitutako aurrerabideak –gaurko gure gizartearen beharrizanen araberakoak– biltzen dituena.

Hori dela eta, Hezkuntza Departamentuak legegintzaldirako dituen helburuen artean ageri da CREENAren antolakuntzaren eta eginkizunen aldaketa; hala adierazi zuen Hezkuntzako kontseilariak 2007ko urriaren 4an Legebiltzarrean eginiko agerraldian eta hala jasotzen da Plan Estrategikoko ekintzetan. 2008an aniztasunari erantzuteari buruzko Foru Aginduak, Hezkuntzaren Lege Organikoa garatuz, arlo horri buruzko alderdi guztiak arautzen ditu gure erkidegoan, eta horren karietara beste urrats bat egin da sistemaren eskakizun eta beharrizan berriei egokitze aldera.

Hala baldin bada, zehaztu zer aldaketa izanen diren horiek eta zer sektore, erakunde eta abar ari diren aldaketa horietan parte hartzen.

Baliabideen Zentroa hasieratik beretik jasotako hiru arlo funtzionalen arabera antolatuta dago, eta kasuan kasuko egokitzapenak egin izan dira aniztasunaren tratamenduaren hobetzeari bultzada emate aldera, tratamendu hori normalizazioaren eta inklusioaren printzipioetan oinarrituta bere zentzurik zabalenean hartuta.

Proposatutako antolamendu berriak jarduketa esparrua zabaltzea bilatzen du, Hezkuntzaren Lege Organikoaren nahiz hezkuntza-erkidegoaren eskakizun berriei egokitzeko. Halatan, zentroan espezialitate orokorretako profesionalak sartzea proposatzen da, eginkizun gehiagori aurre egin ahal izateko eta ikastetxeen eskakizun berriei erantzuteko.

Arloetara atxikitako profesionalen zerbitzu eginkizunak bukatutakoan, berritzeko eskaera egin dutenei berritu eginen zaie, eta 2009-2010 ikasturteko lanpostu berriak beteko dira.

Hona arloak:

Informazio eta Baliabide Arloak hezkuntza-erkidegoaren eskakizunak jaso eta bideratuko ditu eta hezkuntza arloko materialen eta baliabideen zabalkundea sustatuko du. Eskola-ibilbidean zehar nahiz lan mundurako iragaitean familientzako gida eta babesa izan nahi du orobat.

Balorazio eta Aholku-emate Arloak laguntza emanen die ikastetxeei, berariazko beharrizanekiko ikasleek behar dituzten hezkuntza-erantzunei dagokienez.

Laguntza Zuzeneko Arloak esku-hartze zuzeneko eginkizun osagarriak izanen ditu, bere beharrizanen espezifikotasunaren arabera esku-hartze zuzena behar duten ikasleentzat.

ANTOLAMOLDEA ETA EGINKIZUNAK

**ZUZENDARITZA**




| | | |
|---|---|---|
| - Ondoko taldeentzako informazioa koordinatzea: familiak, ikastetxeak, irakasleak, elkarteak, entitateak eta abar.<br>- Liburutegia gaurkotzea eta mantentze-lanak egitea.<br>- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatzea, aniztasunaren tratamenduan.<br>-Berrikuntza eta ikerkuntza arloko esperientzien berri ematea, aniztasunaren tratamenduan eta praktika inklusiboetan.<br>-Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako material berariazkoen mantentze-lanak. | -Aholku ematea ikastetxeei, aniztasunaren tratamenduaren arloko neurriei dagokienez.<br>-Eskolatze motari buruzko proposamenetan aholku ematea eta lankidetzan aritzea.<br>-Hezkuntza premia bereziekiko ikasleekin lan egiten duten irakasleentzako prestakuntza eta curriculum-materialak prestatzea.<br>-Hezkuntza premia bereziekiko ikasleak hartzen dituzten egituren jarraipena eta ebaluazioa.<br>-Profesional espezialistekiko koordinazioa: entzumeneko eta hizkuntzako maisuak, fisioterapeutak eta zaintzaileak. | -Ospitaleko eta etxeko laguntza.<br>-Laguntza goiztiarra (0tik 3 urtera bitarte).<br>-Portaera-nahaste larriekiko ikasleak, Adimen Osasunarekin koordinatuta.<br>-Esku-hartze espezifiko eta subsidiarioa zentzumenen edo mugitzeko ezgaitasunekiko ikasleak hartzen dituzten ikastetxeetan. |

Kontuan hartuta proposatutako aldaketak CREENA arautzen duen Foru Dekretuaren esparruan eta Administrazioak zerbitzuen behar bezalako funtzionamenduari begira duen antolamendu-ahalmenaren arabera egin direla, antolamendu berria Departamentuko teknikariek taxutu dute, Departamentuak berak nahiz ikastetxeek eginiko ebaluazio jarraian oinarrituta. Ondokoen ekarpenak ere jaso ditugu: CREENA bera, CORMIN (Ezgaituen Ordezkarien Nafarroako Batzordea) –FEAPS, ONCE, ASORNA eta gisako elkarteak biltzen ditu– eta hezkuntza bereziaren munduan ospe handia duten profesionalak.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

# Galdera, "Análisis de la situación de las personas paradas de larga duración" izeneko azterlanari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du "Análisis de la situación de las personas paradas de larga duración" izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak UGTri enkargua eman baitzion "Análisis de la situación de las personas paradas de larga duración" izeneko azterlana egiteko. Azterlanaren kostua 72.384 eurokoa zen. (PES-115/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Departamentuak azterlan horretan proposatutako jarduera- eta hobekuntza-neurriei buruz duen iritziari dagokionez esan beharra dago Gobernu honek begi onez ikusten duela azterlan baten emaitzen ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak, edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Departamentuak proposatu zaizkion neurrietakoren bat ezartzeko asmorik ote duen eta noiz ezarriko lituzkeen galdetzen da, eta horri buruz adierazi behar dizut Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen dituela azterlanetatik heldu den emaitza eta –kasua bada– proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenei dagokienez –azkena, exekutiboa eta proiektu bakoitzaren laburpena–, idazki honen eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00115 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/

## Galdera, “Herramientas metodológicas: Historias de vida” izeneko azterlanari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du “Herramientas metodológicas: Historias de vida” izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak UGTri enkargua eman baitzion "Herramientas metodológicas: Historias de vida" izeneko azterlana egiteko. Azterlanaren kostua 4.000 eurokoa zen (PES-116/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Departamentuak azterlan horretan proposatutako jarduera- eta hobekuntza-neurriei buruz duen iritziari dagokionez esan beharra dago Gobernu honek begi onez ikusten duela azterlan baten emaitzen ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak, edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Departamentuak proposatu zaizkion neurrietakoren bat ezartzeko asmorik ote duen eta noiz ezarriko lituzkeen galdetzen da, eta horri buruz adierazi behar dizut Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen dituela azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenei dagokienez, jakinarazi behar dizuet inongo txostenik ez dagoela, zeren eta “Herramientas metodológicas” izeneko proiektua lan egiteko mintegi/jardunaldi bat da, elkarrizketetako bizitzaren historiei buruzkoa.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00116 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:
http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/

# Galdera, "Mejora de la calidad de la oferta en la formación de demanda. Estudio del caso: Familia profesional: Fabricación mecánica" izeneko azterlanari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du "Mejora de la calidad de la oferta en la formación de demanda. Estudio del caso: Familia profesional: Fabricación mecánica" izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak UGTri enkargua eman baitzion "Mejora de la calidad de la oferta en la formación de la demanda. Estudio del caso: Familia profesional: Fabricación mecánica". Azterlanaren kostua 67.890 eurokoa zen (PES-117/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Gobernu honek begi onez ikusten du azterlan baten ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak, edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen ditu azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenak –azkena, exekutiboa eta proiektuaren laburpena– idazki honen eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00117 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/

# Galdera, “Capacidades tecnológicas, competitividad y empleo: la extensión de los sistemas de fabricación integrada en los sectores industriales de Navarra” izeneko azterlanari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du “Capacidades tecnológicas, competitividad y empleo: la extensión de los sistemas de fabricación integrada en los sectores industriales de Navarra” izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak CENi enkargua eman baitzion "Capacidades tecnológicas, competitividad y empleo: la extensión de los sistemas de fabricación integrada en los sectores industriales de Navarra". Azterlanaren kostua 4.000 eurokoa zen (PES-118/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Departamentuak azterlan horretan proposatutako jarduera- eta hobekuntza-neurriei buruz duen iritziari dagokionez esan beharra dago Gobernu honek begi onez ikusten duela azterlan baten emaitzen ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak, edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Departamentuak proposatu zaizkion neurrietakoren bat ezartzeko asmorik ote duen eta noiz ezarriko lituzkeen galdetzen da, eta horri buruz adierazi behar dizut Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen dituela azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenei dagokienez –azkena, exekutiboa eta proiektu bakoitzaren laburpena–, idazki honen eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00118 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen: http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/

# Galdera, “Trabajo no declarado en Navarra - Fase II” izeneko azterlanari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du “Trabajo no declarado en Navarra - Fase II” izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak CCOOri enkargua eman baitzion "Trabajo no declarado en Navarra- Fase II" izeneko azterlana egiteko. Azterlanaren kostua 91.073 eurokoa zen (PES-122/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Departamentuak azterlan horretan proposatutako jarduera- eta hobekuntza-neurriei buruz duen iritziari dagokionez esan beharra dago Gobernu honek begi onez ikusten duela azterlan baten emaitzen ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak, edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Departamentuak proposatu zaizkion neurrietakoren bat ezartzeko asmorik ote duen eta noiz ezarriko lituzkeen galdetzen da, eta horri buruz adierazi behar dizut Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen dituela azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenei dagokienez –azkena, exekutiboa eta proiektu bakoitzaren laburpena–, idazki honen eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00215 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/

# Galdera, “Sistema de vigilancia permanente del sector de automoción” izeneko azterlanari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du “Sistema de vigilancia permanente del sector de automoción” izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak UGTri enkargua eman baitzion "Sistema de vigilancia permanente del sector de automoción" izeneko azterlana egiteko. Azterlanaren kostua 60.434 eurokoa zen (PES-123/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Gobernu honek begi onez ikusten du azterlan baten ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak, edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen ditu azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenak –azkena, exekutiboa eta proiektuaren laburpena– idazki honen 1. eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00123 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/

# Galdera, "Un autónomo o autónoma diferente. Los `Trade´ en Navarra" izeneko azterlanari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du "Un autónomo o autónoma diferente. Los `Trade´ en Navarra" izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak CCOOri enkargua eman baitzion "Un autónomo o autónoma diferente: Los 'Trade' en Navarra" izeneko azterlana egiteko. Azterlanaren kostua 36.478 eurokoa zen (PES-124/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Azterlan horretan proposatutako jarduera- eta hobekuntza-neurriei buruz dudan iritziari dagokionez esan beharra dago Gobernu honek begi onez ikusten duela azterlan baten emaitzen ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak, edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Departamentuak proposatu zaizkion neurrietakoren bat ezartzeko asmorik ote duen eta noiz ezarriko lituzkeen galdetzen da, eta horri buruz adierazi behar dizut Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen dituela azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenei dagokienez –azkena, exekutiboa eta proiektu bakoitzaren laburpena–, idazki honen eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00124 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:
http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/

# Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta INAFREren arteko hitzarmena sinatu ondotik aurkeztutako eta onetsitako proiektuei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta INAFREren arteko hitzarmena sinatu ondotik aurkeztutako eta onetsitako proiektuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenari buruz. Izan ere, haren bosgarren klausulan aipatzen da hitzarmena sinatu ondoren egiten diren proiektuak 2008ko irailaren 30a baino lehen aurkeztu behar direla eta ezin direla 50.000 eurotik gorakoak izan UGTren kasuan, 99.428 eurotik gorakoak CCOOren kasuan eta 221.760 eurotik gorakoak CENen kasuan (PES-125/09). Hona Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Hitzarmena sinatu ondoren aurkeztutako proiektuek aipatu hitzarmeneko hirugarren klausulan ezarritakoa betetzen dute.

Aipatutako proiektuei dagokienez, hitzarmenean aurreikusitako egunerako bukatu dira.

Planteaturiko galderari erantzuteko erabili beharreko bolumena dela eta, 40 dokumentu eta 1.500 orri baino gehiago baitira, dokumentazio hori departamentuan egonen da zure esku, kontsulta dezazun.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Inprimatzailea: Ulzama Digital (Iruña).

Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua